

## Tolerantzia

RAMON LABAIEN



**TOLERANTZIA,** horra hor Euskal Herrian gero eta gehiago entzuten den hitza. Segur aski, bazez garaia, pakea nahi badugu, horrelako zerbait manitzen hasteko.

Badira gizaldiak, Konfuziok erran zuenetik bertute guziren artean tolerantziarena zela nagusi. Tolerantzia, haren ikuspegitik, eskubide diren aitortzea. Eta eskubide direnez, errespikatzea.

Errespatuan oinarritzen da benetan tolerantzia, eta baita ere zuzentasunaren tolerantzia. Ez da ematen den zerbait, baizik zor den zerbait. Gaur eman eta bihar kendu, nahi denean eta nahi den moduan, horrek ez du zer ikusirik tolerantziarekin. Hori zerbait tolerantzia litzateke, zeharo beste kontu bat. Zerbait onartzea komeni denean bakarrik, edo esan zaigun bezala 'borondate politikoa' dagoenean. Zer den hori, pinpilinpaua gisa, agerua eta desagertzzen dena, norbaitek ba ote daki?

Ez zaizkigu falta, adibidez, Euskal Herrian bertan, euskeraren tolerantzerat prest dagoenak, erdera inposatuz, noski. Bizitzeko baimen bat bezala emanaz, bukatuko den esperoan, bizitzeko eta zutik eusteko eskubide osoa duenari.

Ez dira horiek tolerantziaren bideak. Ezta ere demokraziarenak. Hala ere, sinisten dut nik oraindiko, gure Euskal Herri hontan demokraziarantz goazela. Pittinka. Gauza eta kokxa izanik nola mugatzen den aginte osoa omen duen 'Demos' hori, herri hori... Euskal Landa zaharretan betidanik kokatu den herriaz ari garen mintzatzen edo beste zerbaitetaz? Eusko 'Demos-aren' demokraziatz edota estatu aparatu hotz baten inposaketaz? Galderak eta galderak.

Laoseko edozein Ministrok erranen lukeen bezala, ba al da munduan norbait, Espainiako erresuman nola arraio dabilzan gauzak dakienik?

## M-3

TXILLARDEGI



«**SER** español es la cosa más seria del mundo» esan ohi dute kapra fatyek. Aste hauetan, ilara azken-gabean, Hegoaldeko zapal-tzaileek eskaini duten erakutsaldia ondoren, nekez esan daitezke «no hay cosa menos seria y más bananera que ser español» baizik. Zinez, espainola izatea: lotsagarria da.

«Batzuk 'camelo', 'chupuza', eta 'relajillaren' barruan bizi dira pozik, loriatzen, eta 'cómodos'. Bejondeiela! Guk Roldan, Vera, eta gainerakoengandik, urrun eta at bizi nahi dugu. 'Batzuk' esan dugu; baina izen-abizenak ere erants daitezke. Arzalluzek eta beronen lagunek bazkatu eta etzan nahi dute ikuitu horretan. Simaur hori nahi dute, beren horretan, GAL eta guzti. GAL hori euskal abertzaletasuna itotzeko antolatuta baitzen.

Hor nonbait dauza 28 gudariaren gorputzina. «*Bien muertos están*» esaten digute lotsa izpirik gabe 'Granadako' buruquidek. Ixo! «*Nada de investigaciones. Hay que apoyar a Madrid, ahora y siempre.*»

Eta egun berean, 'Marquegui ararteko'. 'Defensor del pueblo', omen. Zein herriaren defendatzaile? Marquegui delakoak ez daki euskaraz. «Eta, zer?» erantzuten dute Arzalluzen mutilek. «*Qué pasa, tío? Sabe español, que es lo único importante.*» Eta PNVak, bero josten du txalo: «*Que viva la España cañ!*».

«*Nosotros a taquilla a cobrar, que es lo nuestro. Los aberchales; batasmos, y demás jilipollas, a cascar, que es lo suyo.*» Bai, mutilak!

Eta galdera bakar bat amaitzeko: zer gertakari zai, (zer debruen zai hobe), daude oraindik PNVa alderdi 'abertzaleen' artean kokatzen dutenak? Noiz arraio kokatuko dute Euskal Herriaren borroaren artean?

Egun hita, bai, atzokoa. 'M-3', Martxoaren hirua. Hemendik goiti, letra beltzez idaztekoa.

## EL MUNDO


### Makinista sobera

Eibarren tren bat orduan 67 kilometroko abiaduran joatetik deskarrilatu eta bi egunen buruan, Ajuria Eneko Mahaiko partaideek erabaki zuten zuhurragoa zela geltokian gelditzea, zer etorriko zain. Nagusitu zen —omen— zuhurtzia, beldur baitziren lituna ere deskarrilatu ote zen edozein martxatan abiarazirik ere.

Edozein aitzakia on da besoa besoaren gainean egoteko. Atentatu bat ez denean, HBren barrako debataren espektatiba da, edota hauteskunde batzuek debatea borroka partidistekin zikitzenko beldurra. Eta guztiaren gainetik hegan, sofisma gorena: pilota HBren teitlatuan dago.

Ezin atera naiz harriduratik halako astakeria behin eta berri izentzuan. Pilota geure teitlatuan dugu. Gutako zeinek pairatzen ditu ondorioak? Zer odol isurtzen da?, nongoak dira presoak?, zer gizarte-egitura ari da hondatzen?, zer herri ari da murgiltzen esperantzarik ga-

## HEMEROTEKA



Belloc, Kongresuan agertu behar duk...!!

beko amore ematean?

Egin diezaiegun aurre gertaeri. Den gogorrena izanik ere hau esatea, hau etaucan deus gutxi espero dezakegu PSOE edo PPren aldekit. Bietako bat ere ez dago arazoari behar bezala helitzeko moduan. Beste zerbaitetan daude. Batzuk Gonzalez bota nahian, besteak eutsi nahian. Eta okerrera da, PPren planteamenduak ikusita, aldatetatik ere gauza handirik ezin espero de-

zakegula guri gehien ardura zaigun horretan. Batasun printzipioa, jakina, defenditu beharreko balioa zen.

MARIANO FERRER

## EL DIARIO VASCO

### Arazoa

Herritaroi ez zaigu axola Gobernuaren elkartasuna, eskua hainbat sutan jartzea, ezta

—zoriturrez— zin hitzak ere.

Zeren eta guri lotsa eta amorruta ematen diguna da gure ingainatzea edo beren burua ingainatzen uzten duten ministrok izatea. Ez baikara konformatuko Roldan zelda batean egotearekin, gero epaitu behar duen ezin epaituko badu. Nahikoa da, eta ez dezagula egunotako filmea berriz ikusi baina atzeraka: Roldan Espainian sartzen ez baizik ateratzen ari.

ANDRES ABERASTURI

## ZUZENDARIARI

### Herrizaingo Sailari

Imanol Lertxundi 'Porru-ren' heriotza tamalgaria dela eta, Sail horretatik neure izen eta abizenez hartu dudanez karta bat hilketaren bertsioa ematen, beharturik aurkitzen naiz horri erantzutera.

Ondo dakit, hurbiletik jakin ere, egun horretan San Juan Txurru kalean Ertzaintzak izan zuten portaera eta erabili zuten metodoa bakean hurreratu zen gizon nagusi horrekiko. Eta zuk, Atutxa, ondo dakizu edo jakin behar zenuke, zure ingurukoak ere bai, gizona beste barik ertzainek eskumakiaz kolpatu zutela eta bere heriotza iskanbila hortan jasan zuten presio eta tentsioaren ondorioa izan zela.

Ertzaintzak eragindako heriotza hau dela-eta zuk, Atutxa, izan zenuen parada telebistaren bitartez Euskal Herri osoari zuzkeriazko bertsioa emateko zeuk ezer ikusi

gabe, eta han bertan gertatutakoaren lekukoei egiazko azalpena emateko aukera ukatu egin zenien.

Gogoeta eta hausnarketa eskatzen diozu Ondarroako herriari, baita neuk ere beste horrenbeste zuri eta zure ingurukoak. Gertaera hau, Amnistiaaren aldeko kide, astero bezalaxe, iluntzerako batzar eta manifestaziorako deia egiten ari zirela gertatu zen: Euskal preso politikozentzat amnistia exigitzeko eta, sakoneko arazo politikoiari konponbiderik ematen ez diozuen bitartean, presoek dagozkien giza eskubideen errespetaua exigitzeko. Amaitzeko, esan beharra daukat horrelako gertaera izendaez in bat kalean begi-bistan suertatzen denean eta era horretan manipulatzeko bada, auskalo zer egingo duten komisaldegi edo bazter horietan gertatutakoaz.

BEGOÑA BURGEO ARKOTXA

Ondarroa (Bizkaia)

### Zumaia bizirik taldeari

Zumaia Astillero bezala Eusko Jaur-laritzarekin portuko sarrerako lanari buruz zuek izandako eztabaidaren lekukoak izan gara. Eztabaida honen emaitzaren bat Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren erabaki bat izan da, non lanen geratzea agintzen zen.

Ezin dugu eta ez dugu eztabaida horretan sartu nahi baina bai azaldu nahi dugu, behin zuei jasoko genituzkeen kalteak azaldu eta gero, auzitegiari geldiketaren altxaketa eskatu zenietela Astillero hau ez kaltetzeko.

Horregatik publikoki eskertu nahi dizuegu azaldu duzun ardura zentzuzkiatiki. Eskertza hori luzatu nahi diegu arazo honen konponbidean parte hartu izan duten guziei.

ASTILLEROS BALENCIAGA SA


Zumaia (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA

### Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Nafarroako bertsolarien urtero ohi den bezala, bertso kontuan badakitenaz eskeiniko dute gala. Mikrofona eskuan hartuz abesteko eginahala, jendea aurrean dala, aurkakoaren itzala, aurpegi latzak bihur daitezke bihotzera doan bala, hortaz mesedez entzulegoak gozoz txalotu dezala.

ANJEL IRURETA



## Egunkaria

Bat/ord. Parekidea: 72564 E / Lege Dardailua: SS 800/9

OB. IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkaria: ISAKI URUA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Gerentia: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egokita nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain  
 ☎ 30 02 22 / Erredakziozko faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 0

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 7

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irmitzi dorrea) / 31011 Iruñe  
 ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo  
 ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pamecau 14, 1/503 Post  
 kuxatila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11